



## BERRI ONAK

# RAMADANAREN AMAIERAKO FESTA

Hilabete bateko baraualdiaren ondoren, milaka musulman bildu ziren joan den apirilaren 11n Euskadiko hainbat tokitan Eid al Fitr jaiari edo Ramadanaren amaierako jaiari otoitz egiteko. Bizkaiko hiriburuko Miribillako Bilbao Arenan bildu ziren fededun gehien, 4.000 pertsona inguru.

Bilbao Arenan elkartu ziren musulmanek meskitan otoitz egiten hasi zuten eguna. Gainera, pabiloiaren

barruko sarreran, Zakat al-Fitr tradizionala egin zuten, hau da, txiroenentzako diru-bilketa.

Era berean, egun berezi honetan opariak egiten dira, etxeak apaintzen dira, bertaratutakoek arropa berria erabiltzen dute eta plater tradizionalak prestatzen dituzte hurbileko pertsonekin partekatzeko. Horrez gain, familia eta lagunak bisitatzen dituzte egun zorionsua opatzeko, horretarako prestatutako pastelak eta jakiak probatzen dituzten bitartean.

## GASTEIZKO KOROATZE AUZOKO RAMADAN SOLIDARIOA

Gasteizko Koroatze auzoko Ibn Battuta marokoar elkarteak, –berrogeita hamar bazkide inguru dituenak–, duela zazpi urtetik hona txoko solidario bat antolatzen du Ramadana egiten duten pertsonentzako derrigorrezko eguneko barauaren hogeita hamar egunetan.

Gauera iristean, kultur elkarte honetako boluntarioek doako janaria eskaintzen dute baliabiderik edo familiarik ez duten pertsoneri laguntzeko. Ramadan honetan, 120 eta 160 pertsona artean egon dira gauero, hau da, 4.500 jatordu banatu dira 30 egunetan.

Bazkideek ordaintzen dute afari solidarioen kostua, eta ahal dutena ematen dute. Aurten, 6.000 euro bildu dituzte, eta horiei beste 3.000 euro gehitu zaizkie, diruz eta generoz egindako ekarpenen artean.



## BERRI ONAK

# EGK ETA BIDAYA ELKARTEA RAMADANA EZAGUTARAZTEN

Bidaya elkarteak eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) Iftar bat egin zuten martxoaren 17an, gazte musulmanekin eta ez musulmanekin, topaketarako, elkarrizketarako eta ezagutzarako leku bat bilatzeko elkarrekin.

Hitzordu hau Euskadiko 16 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzenduta egon zen. Topaketa horretara halal janaria eramatera animatu zituzten, bertaratutako guztien artean partekatu ahal izateko.

Topaketa berezi horren helburua, halaber, musulmanentzat sakratua den hilabete honen inguruan dauden aurreiritzi, iruzkin eta jarrera islamofoboak desegitea izan zen.



## GIZA ESKUBIDEEN EUROPAKO AUZITEGIAK HALAL ETA KOSHER ERRIKUALAREN BIDEZ ANIMALIAK HILTZEARI BURUZKO ERABAKIA HARTU DU

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak (GEEA) erabaki du Halal edo Kosher errikuaren bidez animaliak hiltzeko alde aurreko zorabioa ekarri behar duela, animalien sufrimendua murrizteko. Era horretan, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak eskakizun hori erlijio-eritu mota horien erregulazioan txertatu zuten Belgikako Flandria eta Valonia eskualdeen erabakia babesten du.

Flandriaren eta Valoniaren erabakiak partikularren eta komunitate juduen eta musulmanen ordezkari ziren gobernuz kanpoko erakundeen eskaria eragin zuen, haien erlijio-askatasunerako eskubidea urratzen ari zela iritzita.

Belgikako animalien ongizateari buruzko legeak ezartzen du ezin dela animalia ornodun bat anestesiarik edo zorabiorik gabe hil, baina erlijio-errikuaren kokatutako animalien hilketetarako salbuespena jasotzen du.

Hala ere, 2014an, Estatuaren eskumen-esparrua aldatu ondoren, animalien ongizateak eskumen federala

izateari utzi zion, eta eskualdeena izatera heldu zen. Flandriak eta Valoniak salbuespena indargabetu zuten, eta, horrela, halal eta kosher errikuaren ere aurreko zorabioa nagusitu zen.

Orain, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren arabera, Giza Eskubideen Konbentzioak erlijio-askatasuna murriztea ahalbidetzen du, “beharrezkoak direnean, gizarte demokratiko batean, segurtasun publikorako, ordena, osasuna edo moral publikoa babesteko, edo besteen eskubideak eta askatasunak babesteko”.

Kasu zehatz horretan, animalien ongizatearen babesa “moral publikoaren nozioarekin” lotzen du auzitegiak. “Moral publikoaren babesa ezin da soilik giza duintasunaren babestzat hartu”, adierazi du. Izan ere, moralitasunaren nozioa denborarekin aldatzen dela uste du, eta “garapen sozialak eta arauemaileak” kontuan hartu behar dituela. Ildo horretan, Europako Kontseiluko kide diren estatuaren animalien ongizateak duen “gero eta garrantzi handiagoa” nabarmendu du.

# MUNDUKETARIAK EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN 31. JAIAREN LIBURUA

Martxoan zehar “Munduketariak” liburua aurkeztu zen, Euskal Eskola Publikoaren 31. jaiaren liburua, Patxi Zubizarreta ordiziarrek idatzia eta Jokin Mitxelenak ilustratua, Urdaneta eskola publikoaren komunitateak eta EHIGEk elkarlanean sortua.

“Munduketariak” ipuinak gaur egungo gizartea ulertzeko garrantzitsuak diren hainbat eduki eta ezagutza biltzen ditu, oso modu erakargarrian. Kultura aniztasuna, emigrazioa, nortasuna, munduaren ezagutza, Euskal Herriko geografia, kolonialismoa eta etorkizuna eraldatzeko beharra bezalako eduki garrantzitsuak lantzea ahalbidetzen du, besteak beste.

Liburu honek aurreko lanen arrastoari jarraitzen dio, non Patxi Zubizarretak migrazioen eta mundu arabiarraren errealitatera hurbiltzen gaitu, “Usoa” ipuinarekin edo “Eztia eta ozpina” eleberriarekin bezala.



ADOS Eusko Jaurlaritzak sortutako Aholku Batzorde bat da, euskal erakundeen eta Euskadiko Komunitate islamikoen arteko lankidetzaz sustatzeko sortua. 2018ko apirilaren 14an eratu zen. Orduetik, urtean gutxienez bost aldiz bildu da. Batzorde horretan euskal erakunde guztiek eta komunitate islamikoetako kideek parte hartzen dute. Bileretan bizikidetzaz sustatzeko lan egiten da, eta helburua da Euskadiko komunitate islamikoen arazoei irtenbideak bilatzea.



ADOS Aholku Batzordea  
Comisión Asesora ADOS  
اللجنة الاستشارية أَدوس

945 017 940  
adosbatzordea@euskadi.eus  
Navarra, 2 / 01007 Vitoria-Gasteiz

*Euskadi, auzolana, bien común*

